

SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK

GU BAI GURASO BERRITSUAK

ESKAINI EUSKARA INGURU HURBILEAN

Inguru hurbilean euskararen lekua zaintzea gure seme-alaben onurarako izango da.

Gure seme-alabek euskaraz ikasiko dute eskolan, eta hainbat gurasok etxetik ere euskara eskaintzen diegu. Baina, testuinguru gehienetan, euskara ez da gizarteko hizkuntza indartsuena eta horrek eragina du gure seme-alaben euskararekiko jarreretan eta jokabideetan. Hau da: lortu beharko genuke beraiek ikustea euskara edozein egoera eta harremanetarako baliagarria dela.

Horri begira txikiak direnetik ingurune hurbilean euskararen lekua zaindu dezakegu: ez da zaila, eta merezi du.

Zer egin dezakegu inguru hurbilean euskara eskaintzeko?

- Beraiekin euskaraz egin
- Etxean euskararen lekua zaindu
- Euskaraz izan daitezkeen harremanak bistaratu

Beraiekin euskaraz egin

Guk beraiekin euskaraz egitea izango da euskararekin harreman indartsua eskaintzeko bide nagusia.

Etxean guztiok baldin badakigu euskaraz, etxeko harremanak eta giroa euskaldunak izan daitezke. Gure esku dago hori.

Etxean guztiok ez badakigu euskaraz, gutxienez euskaraz dakigunon arteko harremana euskaraz izan daiteke, eta hori zaindu dezakegu.

Zer egin dezakegu?

Guk, beti, beraiei euskaraz egin: etxean eta kalean. Baita euskaraz ez dakitenak aurrean daudenean ere. Elkarrizketa gure seme-arekin/alabarekin bada, ez du axola besteek ez ulertzea, eta ez da errespetu falta. Elkarrizketa batzuen artekoa bada eta bateren batek ez badaki, hor erdaraz egin beharko dugu. Baina gure seme-alabekin banan banako harremana erabat euskaraz izatea bermatu dezakegu.

Etxean euskararen lekua zaindu

Gure seme-alabek euskara balio indartsuekin lotu dezaten eta beraientzat hizkuntza erakargarria izan dadin, beharrezkoa da txikiak direnetik etxean euskararen lekua zaintzea. Entzun eta ikus dadila euskara etxean.

Zer egin dezakegu?

Hainbat eta hainbat aukera eta tresna ditugu: irratia, musika, telebista, aldizkariak, komikiak, liburuak, hizkuntza-paisaia eta abar.

Adibidez:

- Beraiekin jolasean ari garenean edo eskulan bat egiten ari garenean, euskarazko musika jarri
- Abestu beraiekin batera etxean eta kalean
- Irrien lagunak aldizkariko harpidetza egin edo Berria egunkariaren larunbatetako Manttangorri gehigarria beraiekin batera irakurri
- Euskarazko ipuinak kontatu eta irakurri
- Etxean zehar euskarazko esaldiak edo leloak dituzten marrazkiak, kartelak eta egutegiak jarri
- Etxeko lanak egiten ari garenean euskarazko irratia jarri
- Eta bururatzen zaizuen beste edozer gauza

Horretaz gain, gurasook eredu izan zaitezketekete, eta zuek ere euskaraz baliatu ditzakezue telebista, irratia, prentsa, musika eta bestelakoak. Zuentzat euskara baliagarria eta erakargarria bada, zuen seme-alabentzat ere izan daiteke.

Honako hauek sarean aurkitu ditzakezuen baliabide batzuk dira:

Euskarazko produktuak

www.katalogoa.eus

Marrazki bizidunak

www.euskal-encodings.com/marrazkiak

Entzuteko ipuinak

www.etxegiroan.eus

Entzuteko ipuinak

Mobileko aplikazioa: Ipuintxo

Entzuteko ipuinak

www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak

Entzuteko ipuinak

www.solasegitekoipuinak.net

Karaokea

www.txantxangorria.eus

Karaokea

www.kantuan.eus

Euskarazko jolasak

www.aisia.net/txantxariak

Euskarazko jolasak

Mobileko aplikazioa: Jolastoki

Euskarazko musika

www.badok.eus

Irratia euskaraz

www.eitb.eus/eu/gaztea

Aldizkaria

www.irrienlagunak.eus

Gertuko harremanetan euskaraz izan daitezkeenak bistaratu

Etxetik kanpora ere zaindu dezakegu gure seme-alabek euskararekin duten harremana. Gu bizi garen inguruan euskarak lekua handia badu, erraza izango da. Baina horrela izan zein ez izan inguruko harremanetan euskara bistaritzen saiatu gaitzke. Bide horretatik euskarak edozein egoera eta harremanetarako balio duela ikusten eta barneratzen lagunduko diegu seme-alabei.

Zer egin dezakegu?

Inguruan ditugun harremanak eta euskaraz izan daitezkeenak horrela izan daitezen sustatu, eta gure seme-alabek hori ikus eta bizi dezaten lagundu.

Adibidez:

- Eskolako beste gurasoekin euskaraz egiten ahalegindu. Eskola inguruan, parkeetan eta beste edozein lekutan. Euskaraz dakitenekin euskaraz egin, eta ondo jakin ez baina ulertzen dutenekin ere euskaraz egin edo gutxienez euskarari leku handia eman.
 - Erakunde publikoetara jotzean (kultur etxea, kiroldegia, udaletxea...) euskaraz egin edo hizketan ari garenak euskaraz ez badaki gutxienez euskarari leku handia egin (agurrak, esaldi laburrak, eta abar).
 - Eguneroko erosketak egiten ditugun dendetan euskaraz eskatu. Dendariak euskaraz dakiela baldin badakigu, euskaraz egin. Are gehiago, gure seme-alabek beraiekin ere hitz egin dezaten sustatu: beraiek eskatu edo ordaindu dezatela, adibidez.
-